



## PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

<b>ZENTRUA</b>	CPED KIROLENE KIIP		
<b>GRADUA</b>	ERDI MAILA	<b>ZIKLOA / MAILA</b>	1
<b>MODULUA</b>	FORMAKUNTZA PRAKTIKOA		

HELBURUAK	EDUKIAK
<p>A) Kirol irakaskuntzarako azken zikloko profesional eta kirol konpetentziak eskuratzea, irakaskuntza zentruan.</p> <p>B) Bizitza osorako ikaste prozesura eta prestakuntzarako aldaketetara motibatzea.</p> <p>C) Kirol lan eta antolamendurako dagozkion ezagutzak lortzea, hauek erraz aplikatzeko helburuarekin.</p> <p>D) Benetako kirol eta lan egoera erreal batean ikastetxean eskuratutako helburuen lorpena ebaluatzea.</p>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Aurkikuntza eta eroapen ariketetan erabiliko diren urperatze, seinaleztapen, segurtasun, komunikazio eta lehen sorospen ekipamenduen egoera eta funtzionamendua ikuskatu.</li><li>2. Urperatze, seinaleztapen, segurtasun, komunikazio eta lehen sorospen ekipamenduen oinarriko mantentze lanak eta konponketak egin.</li><li>3. Botilen karga, presioen frogaketa eta nahasketen analisiak egin.</li><li>4. Urpeko gidari moduan jokatu urpekari talde batekin batera urperatuz.</li><li>5. Monitore moduan jokatu bataioak burutuz (aurkikuntza ekintza) kirolariak urpekaritzan murgilduz.</li><li>6. Segurtasun urpekari eta urpekaritza ikastaroetan laguntzaile moduan jokatu..</li><li>7. Beharrezkoa izango balitz, bere taldean sorospenik beharko lukeen urpekari bat erreskatatu.</li><li>8. Istripu batean lehen sorospenak aplikatu.</li><li>9. Bideratu urperaldi batean itsasontzi berean doazen urpekariak, talde desberdinetan antolatuz.</li><li>10. Kirolariei eta urpekariei jaramon egin; harrera eginez, informatuz, orientatuz eta agurtuz.</li><li>11. Aurkikuntza ekintzak (bataioak) antolatu jasotako argibideak eta programazioa jarraituz.</li><li>12. Urpekari talde baten urperaldi bat antolatu jasotako argibideak eta programazioa jarraituz.</li><li>13. Urpekaritza larrialdi baten aurrean, beharrezko ekintzak</li></ol>



eginez, egoera koordinatu eta burutu.

### EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ikasleak hastapen hauek behar bezala ezagutu beharko ditu:

- Urpekaritza klub, zentru edo kirol erakundeko antolamendu egitura eta funtzionamendua identifikatzen du, urpekaritza autonomoko gidatze eta aurkikuntza ekintzen eskaintzarekin erlazionatuz.
- Autonomiaz, inizatibaz eta arduraz jokatzeko lan postuan; jokaera etikoa izan, komunikazio trebetasuna, talde-lana, ingurumena zaindu eta enpresak aplikatutako prozedurak jarraitu.
- Urpekaritza autonomoko aurkikuntza eta gidatze ekintzak antolatzen du, baliabideak identifikatuz eta erabiliz, erreferentzia programak interpretatuz eta prozedura bete ezarritako arauak eta jasotako aginduak jarraituz.
- Prestakuntza eta mantetze-lanak egiten ditu urperatze ekipamenduari, seinaleztapenari, segurtasun eta botila kargari dagokionez urpekaritza autonomoko zein ezagutza jardueretarako beharrezkoak direnak, erabakitako aginduak eta arauak interpretatuz eta operaziorako beharrezkoak diren prozedimenduak eta teknika propioak exekutatzuz.
- Urpekaritza lanetan, larrialdi kasuan esku-hartzea koordinatzen du, ebakuazio planak interpretatuz, egin beharreko pausuak jarraituz eta igorri beharko informazioa erabakiz.
- Urpekarien ibilbidea burutu eta gidatu egiten du urpeko bideetatik eta aurkikuntza jardueretan, urpekarien jarrera kontrolatuz, lasaitasuna transmitituz, eta ibilbidea urpekarien esperientziaren eta interesen arabera egokitu.
- Lehen sorospenerako prestazio lanak egiten ditu arauak eta protokoloak interpretatuz, eta erabakitako arau eta protokolo hauen teknika eta prozedura aplikatuz.

### EDUKIEN SEKUENTZIA

Sekuentziaren ordena berbera izan beharko litzateke, zailtasunaren arabera (errezenetik zailenera) antolatuta daude eta.

UNITATE DIDAKTIKOA	HELBURUAK	EDUKIAK	EBALUAKETA IRIZPIDEAK
<b>UD Nº 1</b> 150 h. aurrez aurreko.	A, B, C, D.	1	a, b, c, d, e, f, g.

### METODOLOGIA:

Praktikak urpekaritza eskola edo zentru publikoetan, zein enpresa, elkarte edo klubetan landuko dira. Urpekaritza autonomoko kirol elkarteak autonomia-erkidegoko kirol erakundeen erregistroan eta kirol federazioan izena emanda eduki beharko dute.

Praktika zentruak esleitura egongo dira aurkikuntza eta eroate ekintzak betetzeko, indarreko legea jarraituz.



Un técnico en buceo deportivo con escafandra autónoma del centro de prácticas adoptará el papel de tutor del alumno y supervisará sus prácticas.

Praktika zentruko eskafandra autonomodun urpekaritza teknikariak beteko du tutore lana eta ikuskatuko ditu praktikak.

Beti tekniko baten ikuskapenean, urrats hauek jarraituko dira ariketa bat egiteko orduan:

- Ikaslearen behaketa teknikariak egindako ariketa burutzerakoan.
- Ikaslearen parte-hartzea teknikari ikuskailearekin ariketak burutzeko orduan.
- Jarduketa ikuskatua non ikaslea arduratuko da teknikariak bidalitako ariketetan.

#### **EBALUAKETA IRIZPIDEAK:**

- Ordutegia eta erabakitako ariketa praktikoak betetzea.
- Zentruko praktiken arduradunak egindako ebaluazio jarraia.
- Kiroleneko hezitzaile-taldearen ebaluazioa.

#### **KALIFIKAZIOA:**

Praktika moduluen amaiareko kalifikazioa GAI edo EZ-GAI izango da.

**Derrigorrezko bertaratzea:** Gutxienez klaseen %90etara aurkeztea derrigorrezkoa da (adierazitako jarduera guztiak osatuta izanda).

#### **EBALUAZIOAREN ONDORIOAK:**

Ikaslea GAI moduan kalifikatuta egon beharko da ikasgai honetan haste-ziklo hau gainditzeko eta eskafandra autonomoarekin Kirol Urpekaritzan Kirol Teknikaria izateko.

Kalifikaziorako atal baten haustea ohiko deialdian modulua ez gainditzea esan nahi du, hau gainditzeko bigarren deialdi ez-ohiko batera joateko beharraz. Ohiko deialdian ez gainditzearen arrazoia agertze falta izango balitz, hau berreskuratu beharko litzateke ez-ohiko deialdia baino lehenago, ohikoaren baldintza berberetan.

Ez gainditzearen arrazoia aurreko atalen bat izango balitz, irakasleak txartzat adierazitako alderdiak errepikatu edo aldatu beharko ditu.

#### **OHARRAK**